

BALIO PROPOSAMENA:

Guk identifikatutako arazoa Nazio Batuen Garapen Jasangarrien helburuakaz lotuta dago, hain zuzen be, 13. helburuagaz: “Klimaren aldeko ekintza”. Klima aldaketa dala eta, gero eta hondamendi natural gehiago gertatzen dira mundu osoan, hain zuzen be, 300-350 hondamendi natural inguru. Halanda be, hondamendiek itxitako ondorioak konpontzeko egiten diran jardueratan eta bolondres lanetan koordinazio eta antolakuntza falta dagoala identifikatu dogu, eta horretan datza gure proiektua. Aldaketa klimatikoak eragiten dauzan hondamendiek itxitako ondorioak konpontzeko bolondresak topatzea, honeek antolatzea eta jendea gai honi buruz sentsibilizatzea izango da gure helburua; izan be, hondamendiek itxitako ondorioak oso kaltegarriak izaten dira, esaterako etxeak eta negozioak apurtzen dabez, kaleak oso zikin geratzen dira, eta abar. Hori dala eta, horreek konpontzea funtsezkoa da biztanleek euren bizimoduakaz aurrera egitea oztopatzen dabelako.

Hortaz, arazo honi emon deusagun konponbidea hurrengoa da: ekintza falta honi aurre egiteko dohaineko aplikazio bat sortuko dogu Europako kaltetutako herrialdeetan laguntzeko prest dagozan bolondresak topatzeko eta hondamendi naturalen aurrean antolakuntza eskaintzeko asmoz. Aplikazio honek hondamendiak gertatutako Europako hiri eta herriak zehaztuko dauz jendea bolondres moduan bertara joateko; eta hareen kudeaketa eta antolakuntza gure esku geratuko da. Horrez gain, hondamendi naturalak egon ezean, sentsibilizazio lanak egiteko ekintzak eskainiko doguz, beti bolondresak izanik.

Berritzaile izateko asmoz, hondamendi naturalek itxitako ondorioei aurre egiteko, bolondresei eta GKE-ei eskaintzen deutsegun zerbitzua, modu antolatu batean egingo dogu aplikazio baten bidez. Horrela, boluntarioak koordinatu ahal izango doguz eta kokapen geografikoa ez da oztopo bat izango. Beraz, arazoa konpontzeko, aplikazioaren bidez, GKE-ek aukera izango dabe behar dabezan bolondresak eskatzeko, eta guk, hareekaz behar dabena adostu ondoren, bolondresak bilatuko doguz postu horrek betetzeko eta bolondresen koordinaketa gure gain geratuko da. Bolondresak aplikazioan sartzean, erregistro formulario bat topatuko dabe lehenik profil bat sortzeko, bertan izen-abizenak, jaioteguna, bizilekua, dakizan hizkuntza desbardinak, telefono zenbakia eta email-a sartu beharko dabe. Ondoren, GKE desberdinek eskaintzen dabezan lan guztiak ikusgai eukiko dabez (informazioa eta guzti) egin nahi daben lanean izena emoteko aukeragaz, eta bolondres lan barriak dagozan bakoitzean euren profilera abisua helduko da. GKE-ei jagokenez, behar dabezan bolondres kopurua eskatzeko aukera eskainiko deutsegu, baita bolondresak bilatzeko antolakuntza be, gu izango garalako hareek behar dabezan bolondresak topatuko eta antolatuko doguzanak. Horrez gain, Babes Zibilekoekaz be lan egiten egongo gara; izan be, hondamendi natural bat gertatzean, egoerari aurre egiteko behar dabezan bolondresak bilatzeaz eta antolatzeaz arduratuko gara.

Amaitzeko, lehiari jagokonez, Ingurumen-boluntaritzako erakundeak existitzen dira, baina klima aldaketaren alde egiten dabezan ekintzak ez dabe gure ideian zuzenean eragiten, hau da, erakunde horreek ez dira zuzeneko konpetentzia izango guretzat; erakunde horreekaz eta GKE-akaz alkartu ahal ginatekelako.

